

## PRENTSA-OHARRA

# 200.000 pertsona baino gehiagok bisitatu dute Nafarroa Arena jardueran egon den lehenengo urtean

Nafarroa Arenak bere lehenengo urteurrena ospatu du 50 ekitaldi, horietako 23 formatu handikoak, antolatu ostean. Urtea amaitu aurretik, publiko guztientzako beste 14 ekitaldi handi eskainiko dira

**Iruña, 2019ko irailaren 23a.** Irailaren 24an Nafarroa Arenaren ibilbidearen lehenengo urteurrena ospatuko da. Irekierako lehenengo aste horretan bisita gidatuak, pilota partidua eta ekitaldi pribatu bat antolatu ziren.

Ordutik, eta lehenengo urtean zehar, Nafarroa Arenak 50 musika- eta kirol-ekitaldi, ikuskizunak, erakusketak, enpresa-bilerak eta publiko guztientzako jardunaldiak antolatu ditu. Guztira 208.036 pertsona bertaratu ziren horietara. Pabilioian egin ditugun berrogeita hamar ekitalditatik 23 formatu handikoak izan dira (3.000 pertsona edo gehiago edo/eta erabateko betetzea pista nagusian).

FORMATU HANDIKO EKITALDIAK		
DATA	EKITALDIA	BERTARATUTAKOAK
18/09/29	Pilota. Masters Codere Finala	3.000
18/10/04-07	Outlet – Navarra Motor Show	15.000
18/10/20	Rosendo. Mi tiempo señorías...	4.000
18/10/27	Mini Lurauto X-Gravity Freestyle Motocross	7.000
18/11/3	Dios Salve a la Reina. Queen. Wembley 86	4.200
/18/11/10	Revolution on ice	10.000
18/11/18	Pilota. 4 ½ Finala	3.000
18/11/24	Pablo López. Tour Santa Libertad	2.500
18/12/12 18/12/16	Taldeko Gimnastika Erritmoko Espainiako Txapelketa	12.000
18/12/22	Ara Malikian. The incredible world tour of violin	6.500
18/12/29	Ene Kantak Jai Erraldoia	7.500
19/02/06-10	Cirque du soleil: Toruk. El primer vuelo	55.000
19/03/30	IZAL	6.000
19/04/01-02	HORECA Norte	4.000
19/04/25	Bob Dylan	4.000
19/05/03	Operación triunfo	10.000

19/05/05/	Mark Knopfler	7.500
19/05/11-12	Antigualeko Gauzen II. erakusketa	1.800
19/05/24-25	Iruña Rock	8.000
19/06/01	Pablo Alborán	8.000
19/06/06	La Pamplonesa kontzertua	7.000
19/08/02	España-Lituanía (gizonezkoen basket)	10.000
19/09/04	Baskonia-Tenerife	3.800
	FORMATU HANDIKO EKITALDIK GUZTIRA	199.800
	BILERAK, JARDUNALDIK, KONGRESUAK	8.236

Urriaren 5ean pista nagusiko jardueri berriro ekingo zaie Manuel Carrasco abeslariaren kontzertuarekin, lehenengo urteurrenaren osteko lehenengo kontzertua izango dena. Ekitaldi horrek 2019ko itxiera-hiruhilekoa irekiko du, 14 kirol- eta musika-ekitaldi zein erakusketa izango dituena urritik abendura bitarte. Guztira, 100.000 pertsona bertaratzea espero da. Gainera, Reyno De Navarra Aretoan bileren, jardunaldien eta kongresuen egutegiarekin jarraituko dugu.

Urtean zehar biztanle guztientzako irekita egon diren bisita gidatuak egin dira, bai irekieraren lehenengo astean zein Gabonetan ere. Aurretiaz erreserba eginda, taldeentzako bisitak ere egin ditugu. Guztira 1.582 pertsonak ezagutu dituzte gure pabilioiaren zirrikituak. Urte amaierara arte, askotariko taldeekin hitzartutako bisitak aurreikusten dira astero. Interesa duten taldeek informazio gehiago eskatu dezakete ondorengo helbide honetan: [www.navarrarena.com/es/visitas-guiadas](http://www.navarrarena.com/es/visitas-guiadas).

#### Babesak eta publikoa

Nafarroa Arenak urteko 29 babesle finko izan ditu lehenengo urte honetan eta horiei unean uneko laguntzaileak gehitu zaizkie.

Reyno de Navarra Turismoak bigarren solairuko Erabilera Anitzeko Aretoa babesten du. Areto horretan, bilerak, kongresuak eta formatu txikiko bestelako jarduerak antolatzen dira Pabilioiaren barruan. Gainera, Miguel Induráin Fundazioak hainbat kirol-ekitalditan laguntzen du.

Foru Komunitatetik bertaratu da publikoaren gehiengoa eta %25 kanpoko publikoa izan da. Zifra horiek, gure jardueraren lehenengo hiruhilekoan bertaratutakoei egindako 600 inkesten ondorioz lortu dira.

#### Etengabeko hobekuntza: irisgarritasun eta agerikotasun operatiboa

Epe honetan zehar mugikortasun urria duten pertsonentzako irisgarritasun hobekuntzak txertatzen joan gara, bai pista nagusian eta frontoian zein zerbitzuetako eremuetan. Behin betiko seinaleztapena jarri da kanpoaldean eta barrualdean eta webgune berria sortu da ([www.navarrarena.com](http://www.navarrarena.com)) ikusizko eta testuzko informazio gehiagorekin eta irisgarritasun sistema hoberekin. Gainera, ekitaldi handietan mugikortasun urriko pertsonentzako arreta-zerbitzua eskaintzen dugu.

Bestetik, operazio eta muntaketa sistemak hobetu dira, esaterako elementuak zintzilikatzeke bigarren arranparrila edo erabateko iluntasuna lortzeko sistema. Gainera, Nafarroa Arenak Hondakinak Prebenitzeko eta Ekonomia Zirkularra Bultzatzeko Bulegoarekin lan egin du edalontzi berrerabilgarriak txertatzeko eta hondakinak bereizteko guneak hobetzeko.

Sukaldaritza espazioak ere hobetu dira, bai El Escondite del Arena kafetegian zein catering zein barne zerbitzuetarako eremuetan ere.

### Lehenengo urteurrena

Gure ibilbidearen lehenengo urteurrena ospatzeko, lehenengo ekitaldian, bi pertsonak Manuel Carrasco-ren kontzertuan Meet&Greet batekin esperientzia biziko dute datorren Urriak 5an. Bi pertsona hauek zozketa baten bitartez aukeratuko dira eta sare sozialetan berri emango dugu.

### 2019 bukaerarako ekitaldien egutegia

Musika kontzertuei dagokienez, ondorengo hauek izango ditugu gurean: Manuel Carrasco urriaren 5ean *Gira La Cruz del Mapa* birarekin; Melendi urriaren 18an *Mi Cubo de Rubik* birarekin; *La Pamplonesa y sus amigos, beti elkarrekin* urriaren 26an; Estopa azaroaren 15ean *Gira Fuego* biraren hasierarekin, bai eta Berri Txarrak taldearen agurra ere azaroaren 22an eta 23an, data horietarako sarrera guztiak agortuta daudelarik. Kirolari dagokionez, uda honetako saskibaloituen partiden ostean, Nafarroa Arenak frontoia beteko du urriaren 6ko Masters txapelketarekin eta azaroaren 24ko 4 1/2ko Finalarekin. Pista nagusian Gimnastika Erritmikoko Txapelketan 4.000 gimnasta baino gehiago ikusteko aukera izango dugu azaroaren 7tik 11ra. Motorraren munduak bere espazioa izango du Navarra Motor Show II. Outletarekin urriaren 10etik 13ra eta azaroaren 13an *Dielow, The Automotive Event* Indoor edizioa egongo da.

### Agradecimiento Eskerrak

Nafarroa Arenarako NICDO-ren taldeetik publikoaren erantzuna eskertzen dugu, bai eta zentroan euren lana egin duten profesionalen ardura, enpresa babesle eta laguntzaileen konfiantza, orokorrean zein ekitaldi berezietarako, eta komunikabideek jendarteari luzatutako informazioa. Izan ere, tartean egon diren pertsona guztiak ekitaldi bakoitzeko zati izan dira.

### Nafarroa Arena: Uste duzuna baino gehiago

Nafarroa Arena Nafarroako erabilera anitzeko pabilioia da. Iruñean dagoen eraikin balioanitza da, kirol eta kultura ekitaldiak zein ekitaldi ludiko edo korporatiboak jaso ditzakeena. Ekitaldi horiek eskualde, herrialde edo nazioarteko mailakoak izan daitezke. Guztira 11.800 pertsonentzako gaitasuna du eta beharren arabera moldatu daiteke. Zinema edo publizitate grabaketarako azpiegitura bikaina du, bai eta espazio mota horien eraginkortasunerako azken teknologia ere.

### Sobre NICDO-ri buruz

Navarra de Infraestructuras de Cultura, Deporte y Ocio (NICDO) erakundea publikoak zuzenean kudeatzen ditu Baluarteko Nafarroako Kongresu Jauregia eta Auditorioa, Iruñeko Planetarioa, Larra-Belagua Eski Lurralde eta Nafarroa Arena (2018an ireki zenetik). Gainera, NICDOk Nafarroako Filtmotekaren eta Navarra Film Comission izenekoaren kudeaketa lanak egiten ditu eta Baluarte Fundazioarako komunikazio eta kudeaketa zerbitzuak daramatza aurrera eta Recinto Ferial de Navarraren (REFENA SL-

k kudeatuta) eta Circuito de Navarra (Los Arcos MotorSport – LAMS-ek kudeatuta) kanpoko kudeaketaren kontrol lanak egiten ditu.

NICDO ondorengo erakundeen barruan dago: Nafarroako Gobernuaren Turismo Departamentuaren barruan dagoen Iruñea/Nafarroako bileren eta ekitaldien Turismo Lan-Mahaian, Iruñeko Udaleko Turismo eta Merkataritzako Alorrean, SODENAn, Iruñeko Hotelen Elkartean, Medikuen Elkargoan, Nafarroako Unibertsitatean, OPC Navarran eta Asociación Navarra de Agencias de Receptivo – ANARTUn. Mahai hori Iruñeko eta Nafarroako sustapenerako Plan Operatiborako arduraduna da, Bileren eta Ekitaldien Turismoko helmuga gisa.

**Informazio gehiagorako:**

Diana González

d.gonzalez@nicdo.es

www.navarrarena.com

948066200